


ELGAk uste du merkataritzako murrizketek hazkunde globala gutxituko dutela

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




AEBek eragindako tentsio komertzial gero eta handiagoek munduko ekonomiaren hazkundera bi hamarren murriztuko dute aurten eta hiru hamarren datorren urtean; inflazioa, berriz, lau hamarren handituko da bi urteetan. ELGAren arabera, Mexiko eta Kanada izango dira tentsio horien eragin handiena jasango duten herrialdeak, hazkunderaren moteltze nabarmenarekin. Kanadako ekonomiaren kasuan, eragina 1,3 puntukoa izango da datozen bi urteetako bakoitzean, eta Mexikoko ekonomian, berriz, are handiagoa: -2,5 puntu 2025ean eta -2,2 puntu 2026an.

ELGAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2024	2025	2026	2025	2026
Munduko ekonomia	3,2	3,1	3,0	-0,2	-0,3
AEB	2,8	2,2	1,6	-0,2	-0,5
Eurogunea	0,7	1,0	1,2	-0,3	-0,3
Alemania	-0,2	0,4	1,1	-0,3	-0,1
Frantzia	1,1	0,8	1,0	-0,1	0,0
Italia	0,7	0,7	0,9	-0,2	-0,3
Espainia	3,2	2,6	2,1	0,3	0,1
Erresuma Batua	0,9	1,4	1,2	-0,3	-0,1
Kanada	1,5	0,7	0,7	-1,3	-1,3
Japonia	0,1	1,1	0,2	-0,4	-0,4
Txina	5,0	4,8	4,4	0,1	0,0
India	6,3	6,4	6,6	-0,5	-0,2
Brasil	3,4	2,1	1,4	-0,2	-0,5


AEBETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




EUROGUNEKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




ELGaren kalkuluen arabera, munduko ondasun eta zerbitzuen merkataritzaren % 8,2k oztupo komertzial berriak pairatu ditzake. Manufakturen sektorea izango da kaltetuena, batez ere automobilgintza, makineria eta ekipamendua, bai eta gailu elektronikoak ere.

Aldebiko muga zergen zuzeneko eraginaz gain, aldaketa geopolitikoei lotutako ziurgabetasunak eta merkatu globalaren zatiketak nazioarteko merkataritzaren kostuak igotzen jarraituko dute. Horren ondorioz, eta herrialde askotan lan merkatuak tentsionatuta daudenez, banku zentral batzuek diru politika zorrotzu dezakete.

TXINAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGA.